



1. SARRERA.

2024. urteko zerga itunduen sarreraren aurrekontua prestatzeko 2023ko likidazioaren aurreikuspena erabili da oinarri gisa, datu hauek abiapuntu harturik: Gipuzkoako Foru Aldundiaren bilketa datuak (Kudeaketa Propioari dagozkionak), eta Estatuaren datuak (EAErekin doitu beharreko zerga kontzeptuei dagozkienak), denak ere abuztuaren 31ra bitartekoak.

Gainera, bi dira nagusiki kontuan hartu behar diren faktoreak Gipuzkoako Foru Aldundiak zerga itunduengatik 2024ko ekitaldian izango duen bilketaren aurrekontua egiteko.

- Jarduera ekonomikoaren bilakaera, aldagai nagusi ekonomiaren hazkunde nominala duena.
- Bilketan eragina duten arau aldaketak.

Laburbilduz, 2024. urterako hemen aurkezten den aurrekontua, Herri Finantzen Euskal Kontseiluari atxikitako zerga itunduen sarrerei buruzkoa, batik bat faktore hauek kontuan hartuz prestatu da:

- 5.903.970,0 mila euroko likidazio aurreikuspena zerga itunduengatik 2023. urterako, urte horretako aurrekontua 5.938.684,5 mila eurokoa denean; hau da, aurrekontuaren gauzatze maila %99,4koa da.
- %2,1eko hazkunde errealak Gipuzkoako ekonomian 2024. urterako.
- Araudian sartutako aldaketek zergabilketan duten eragina, zerga batzuen egoera bereziak baloratuz.

1. INTRODUCCIÓN.

Para elaborar el presupuesto de ingresos por tributos concertados para el año 2024, se toma como base la previsión de liquidación para 2023 realizada a partir de los datos de recaudación a 31 de agosto de la Diputación Foral de Gipuzkoa (por Gestión Propia) y del Estado (por los conceptos tributarios objeto de ajuste con la CAPV).

Además, dos son los factores que básicamente deben tenerse en cuenta para realizar el presupuesto de la recaudación por tributos concertados de la Diputación Foral de Gipuzkoa durante el ejercicio de 2024.

- Evolución de la actividad económica, siendo la variable relevante el crecimiento nominal de la economía.
- Cambios normativos con incidencia recaudatoria.

En resumen, el presupuesto de ingresos por tributos concertados afectos al Consejo Vasco de Finanzas Públicas para el año 2024 que aquí se presenta, está condicionado básicamente por los siguientes factores:

- Una previsión de liquidación para 2023 por tributos concertados de 5.903.970,0 miles de euros frente a un presupuesto de 5.938.684,5 miles de euros, es decir con un grado de ejecución presupuestaria del 99,4%.
- Un crecimiento real de la economía guipuzcoana para el año 2024 del 2,1%.
- Impacto recaudatorio de las modificaciones normativas, valorando circunstancias particulares de algunas figuras tributarias.